



Balendina astronauta

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/balendina-astronauta>

Balendina Tereshkovaren istorioa oso jende gutxi ezagutzen du baina hemendik aurrera, izarrak ikusten **dituzun bakoitzean**, Balendinaz **gogoratuko** zara.

Muy poca gente conoce la historia de Valentina Tereshkova, pero a partir de ahora, **cada vez** que veas las estrellas, te **acordarás** de Valentina.

Balendina Errusian bizi zen. Oso neska lotsatia zen eta eskolan ez zuen lagun askorik. Amak **sarritan** esaten zion **irekiagoa** izan behar zuela, baina Balendinak solasaldiak ez zekien nondik hasi. Balendinaren klaserik gogokoena gimnasia zen, berak kirola maite zuen eta sokatik igotzea **izugarri gustatzen zitzaion**. Hori eta **mendirik** altuenera igo eta **tontor** gainean libre sentitzea.

Balendina vivía en Rusia. Era una chica muy tímida y casi no tenía amigos en la escuela. Su ama le solía decir **a menudo** que debía ser **más extrovertida**, pero ella no sabía cómo empezar las conversaciones. La clase favorita de Valentina era gimnasia. Le **encantaba** el deporte y subirse por la cuerda. Eso y subir al **monte** más alto y sentirse libre en la **cima**.

Urteak pasatu ziren eta parakaidismo eskola batean sartu zen. Hango ikasle gehienak gizonak ziren eta hasieran **adarra jotzen zioten**. Hala ere, laster guztien errespetua lortu zuen Balendinak, oso **ausartia** zelako. Eskola honetan ezizen bat jarri zioten, “Chaika”, hau da, **Enara**. Balendinak hegazkinatik bota eta **askatasuna** sentitzea oso atsegin zuen.

Pasaron los años y Valentina se apuntó a una escuela de paracaidismo. La mayoría de los estudiantes eran hombres y a ella le solían **tomar el pelo**. Sin embargo, en poco tiempo se ganó el respeto de sus compañeros porque ella era muy **valiente**. En esta escuela le pusieron el mote de “Chaika”, que quiere decir **Golondrina**. A Valentina le encantaba tirarse del avión y sentir la **libertad**.

Balendinak 26 urte zituela, gizon bat joan zen parakaidismo eskolara. Berak Balendinaren saltoa ikusi zuen eta **harrituta geratu** zen bere **trebetasunarekin**. Gizonak Balendinarekin hitz egitera joan zen.

Cuando Valentina tenía 26 años un hombre visitó la escuela de paracaidismo. Al ver el salto de Valentina se quedó **sorprendido** con su **habilidad** y fue a hablar con ella.



—Tereshkova Andrea, Kosmonauta Nazionalen Zerbitzuen zuzendaria naiz. Espaziora joatea **gustatuko litzaizuke?**

Balendinak ez zekien zer erantzun.

—Nola? Ni... espaziora joatea?

—Laster espedizio bat espaziora bidaliko dugu eta zu joatea nahiko genuke. Hegan egitea gustoko duzu?

—Bai— erantzun zuen duda barik.

—Gainera, gure nabe berriak oso **estuak** dira eta zure pisuko pertsona bat behar dugu. **Egin nahi izanez gero**, entrenamendu gogorrak egingo dituzu era nabea **erabiltzen ikasiko** duzu.

— Señora Tereshkova, soy el director de la Agencia Nacional de Cosmonautas.

¿Le gustaría ir al espacio?

—¿Cómo? Yo.. ¿al espacio?

—Dentro de poco tiempo vamos a enviar una expedición al espacio y nos gustaría que fuera usted. ¿Le gusta volar?

—Sí— respondió sin dudar.

—Además, nuestras naves son muy **estrechas** y necesitamos una persona de su peso. **Si quiere hacerlo**, deberá entrenar duramente y **aprenderá a utilizar** la nave.

Balendinak gizon horren proposamena onartu zuen eta amari **gezur zuri** bat kontatu zion base horretara joateko. Hurrengo asteetan **gogotsu entrenatu** zen Balendina; **batez ere**, grabitatea eta nabea kontrolatzen ikasteko. **Horrez gain**, hainbat elkarrizketa egin zituen komunikabideetan. Gure Enara **lotsaren lotsaz** erantzuten zituen galderak. Espaziora joango zen lehenengo emakumea izango zen!

Valentina aceptó la propuesta de aquel hombre y le contó una **mentira piadosa** a su madre para que pudiera ir a aquella base. En las siguientes semanas **entrenó duramente, sobre todo**, aprendiendo a controlar la gravedad y la nave. **Además**, le hicieron un montón de entrevistas en medios y nuestra Enara respondía a las preguntas con **mucho vergüenza**. ¡Iba a ser la primera mujer en viajar al espacio!

Azkenean, eguna heldu zen eta Tereshkova “Vostok-6” izeneko nabean igo zen.

10, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1, eta nabea **aireratu** zen.

—Zerua, kendu zure **kapela!**— oihukatu zuen Balendinak.

Espazioan zegoenean bere lehenengo mezu bat bidali zuen:

—Kaixo, hemen Enara. **Zeruertza** ikusten dut. Eta han dago Lurra, zein polita den!

Por fin llegó el día y Tereshkova se subió a la nave “Vostok-6”.

10, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1 y la nave **despegó**.

—Cielo, ¡**quítate el sombrero!**— gritó Valentina.

Cuando ya estaba en el espacio, mandó su primer mensaje.



—Hola, aquí Golondrina. Veo el **horizonte**. Y ahí está la Tierra. ¡Qué bonita es!

Balendina Tereshkovak 3 egun eman zituen espazioa hainbat froga eta irrati **komunikazioaren inguruko** esperimentu garatzen.

Bere bidaia amaitu zen eta izugarritzko ongi-etorria egin zioten Kosmonauta Nazionalen Zentroan. Hala ere, **denboraren poderioz** bere balendria ahazten joan zen.

Valentina Tereshkova pasó 3 días en el espacio haciendo pruebas y realizando experimentos **sobre radiocomunicación**. Su viaje terminó y al volver le hicieron una gran bienvenida en el Centro Nacional de Cosmonautas. Sin embargo, **con el paso del tiempo**, su acto de valentía fue cayendo en el olvido.

Eta orain da gure txanda. Denon artean bere istorioa **zabaldu** ahal dugu, Balendina Tereshkova, Munduko lehen emakume astronauta.

Zure ametsak hegan egiten utzi eta **maite duzunagatik borrokatu!**

Y ahora es nuestro turno. Entre todos/as podemos **dar a conocer** su historia, la de Valentina Tereshkova, la primera mujer astronauta del Mundo.
¡Deja volar tus sueños y **lucha por lo que amas!**